



Nafarroako Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Navarra

XXX. BATZORDEKO

AKTA

2017-10-21

XXX. CJN-NGK-REN OHIKO BATZORDEKO AKTA

2017ko urriaren 21eko, larunbata, 10:30etan, Iruñeako Gazteriaren Etxean, Zangoza Kalea, 30, guztira erregistratutako 28etatik behean deskribatzen diren 19 pertsona egiaztatuekin kontatuz, XXX. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Batzorde Nagusia eratzen da.

Egiaztatutako asistentziak:

- Lantxotegi: 3 pertsona.
- Lantegui Elkartea: 2 pertsona.
- Nafarroako Gazte Sozialistak – NGS: 2 pertsona.
- Nafarroako Eztabaida Elkartea: 3 pertsona.
- Langile Komisioak: 5 pertsona.
- Gazteen Gurutze Gorria: 2 pertsona.
- I Becchi: 1 pertsona.
- Garaiz Gazte Elkartea: 2 pertsona.
- Albatros Kluba: 1 pertsona.
- “Chavorrós y Chavorrís” Elkartea: 3 pertsona.
- EPS Bakearen Andre Maria: 3 pertsona.

Erakunde gonbidatuak:

- Espainiako Gazteriaren Kontseilua: 2 pertsona.

Guztira 29 pertsona.

Erakunde kidetara igorritako gai-zerrendari jarraiki, Batzorde Nagusia abian jartzen da lehenengo atalarekin, XXX. Ohiko Batzorde Nagusiaren inaugurazio ofiziala, Eduardo Alonso Arechaga Lehendakariaren eskutik.

Gai-zerrendaren lehenengo atalarekin amaitzean, bigarren atalari ekingo zaio, Batzordea eta Mahaia eratzeko. Lehendakariak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren eskutik ospatutako eta berretsitako zozketaren ondoriozko Mahai eraketaren berri eman du. Mahaian dagozkien tokiak hartu dituzte Eduardo Alonso Arechaga lehendakariak hala nola Iñaki Serrano Iriarte 1. Lehendakariaordeak eta Kevin Lucero Domingues Idazkariak.

Batzordea eta Mahaia eratu ostean, Idazkariak gehiengoan kontaktetari ekin dio, alegia gai-zerrendako hirugarren atalari. Kontaketa horrela ezartzen da: 19 boto baliodun, gehiengo absolutuaren boto kopurua 10ekoa izanik.

Lehendakariak erakunde kideen altak eta bajak jakinarazi ditu. Alta eman dira lau erakunde: Nafarroako Scout Katolikoaren Federazioa, Altxatu Bullyingaren Aurka,

“Chavorrós y Chavorrís” Elkarte eta SEI. Batzordeak txostena onartu egin du aho batez.

Lehendakariak gai-zerrendan aldaketa bat egiteko eskatu du. Zazpigarren atala, “Onarpena, hala badagokio, 2017 Gestioaren Txosten Partzialarena”, bosgarren atala izango da. Bederatzigarren atala, “Onarpena, hala badagokio, aurkeztutako ebazpenena” zazpigarren atala izango da. Hurrenkerari dagozkion aldaketak onartu egiten dira.

Lehendakariak hitza ematen dio Román Syrbu Batzorde Iraunkorreko Komunikazioaren Lehendakariordeari, 2017 gestioaren txosten partziala, hau da, gai-zerrendako bosgarren atala, ezagutzera eman dezan. Txostena onartu egin da adostasuna lortzeagatik.

Lehendakariak eten bat egin du Ángela Gabarre Batzorde Iraunkorrerako batzordekide izateko hautagaiari, Batzorde Iraunkorrerako hauteskundeak eztabaidatu aurretik atera egin beharko denez, aurkezteko aukera emateko. Bere burua aurkezten du.

Gai-zerrendarekin jarraitzen da seigarren atalarekin, “Dekretu berriaren jarduera saioa”. Lehendakariak erakundetara igorritako proiektuaren zirriborroa eskuratu arte jarraitutako prozesuaren iruzkina egin du eta irakurketari ekin dio, atalez atal, gazte erakundeen erroldako Tituluetatik abiatuz. Zalantza batzuk ebatzi dira. I Becchi proposatzera dator Nafarroako Kirolaren Erakundeak sarbidea izan dezala erakundetako pertsona kideak ezagutzeko. Gazte Sozialistek proposamen hau bozkatzeko eskatzen dute. Eztabaidari bidea eman zaio, hiru proposamenak bozkatzeko:

1. INDJ erakundeak gazte erakunde bakoitzeko errolda eskuratu ahal izatea. Errefusatu egin da aurkako 17 botorekin eta bi abstentziorekin.
2. Nafarroako Gobernuak gazte erakundetako errolden kontrol zorrotzagoa egitea. Errefusatu egin da aurkako 8 botorekin, 8 abstentziorekin eta aldeko 3 botorekin.
3. Gazte erakundetako auditoretzak egitea. Errefusatu egin da aurkako 12 botorekin eta 5 abstentziorekin.

Bertako eta Eskualdeko Gazteriaren Kontseiluetako Tituluak irakurtzeari ekin zaio. Zalantza batzuk argitu dira eta ez da inolako ekarpenik egin.

Atalez atal, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Tituluaren irakurketari ekin zaio.

Dekretuan hizkuntza inklusiboa erabiltzea proposatzen da. Onartu egiten da adostasuna lortzeagatik.

Zerbitzuen Prestazioko Erakundeak CJN-NGK erakundeko kideak izatea proposatzen da, horietako Zuzendaritza Batzordeak nork eratzten dituzten alde batera utzita. Gai hau eragindako erakundeekin sakontasunez eztabaidatzea proposatzen da.

Erakundetako ordezkari bakoitzak 10 boto eskuratzea eta banaketa bere kideen artean berdintasunez ez egitea proposatzen da. Ez da bozkatzen. Proiektu zirriborroaren proposamenen artean erantsiko da.

Proposatzen da lehendakaritza hutsik geratzen bada, ordezkoa lehendakariordea izatea, dagokion hurrenkeraren arabera, bat baino gehiago daudenean. Onartu egiten da.

Proposatzen da pertsona bakarreko karguetan hutsuneak daudenean, lehendakaritzaren kasuan izan ezik, funtzioak Batzorde Iraunkorreko gainerako kideen artean banatzea. Ez da bozkatzen. Proiektu zirriborroaren proposamenen artean jasotzen da.

Barne Erregimenaren Araudian adosten da Batzorde Iraunkorreen parekidetasuna arautzea.

Adosten da Erakunde Kideen Osoko Bilkuraren Bilerako Artikuluan erabakitzea 6. artikuluko erakundeak bertako kideak izango direla.

11.30etan saioa eten egiten da, 11:45ak arte.

Saioari berriro ekiten zaio egun horretako 11:47etan.

Ekingo zaio, hala badagokio, aurkeztutako ebazpenen onarpenari, alegia gai-zerrendako zazpigarren atalari.

Lau ebazpen aurkeztu dira:

1. Ebazpen bat Batzorde Iraunkorrarena, NGK - Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Dekretuaren inguruan. Aho batez onartzen da.
2. Ebazpen bat Batzorde Iraunkorrarena, Bertako eta Eskualdeko Kontseiluen Dekretuaren inguruan. Aho batez onartzen da.
3. Ebazpen bat Batzorde Iraunkorrarena, gazte erakundeen errolda Dekretuaren inguruan. Aho batez onartzen da.
4. Ebazpen bat Lantegi-rena, "Youth in Europe" proiektuaren ezarpenaren inguruan. Aldeko 13 botorekin eta 3 abstentziorekin onartzen da.

Zortzigarren atalari ekingo zaio, hau da, aurreko Batzordeko aktaren onarpenari, eta onartu egiten da adostasuna lortzeagatik.

Gai-zerrendako bederatzigarren atalari ekingo zaio, Batzorde Iraunkorrerako Hauteskundeak. Idazkariak bozketa txartelak banatzen ditu. Berriro gehiengoan

zenbaketa egiten da. 15 boto daude, eta gehiengo absolutua lortzen da 8 botorekin.

Hiru kandidatura aurkeztu dira: Ángela Gabarre, “Chavorrós y Chavorrís” Erakundetik Batzorde Iraunkorreko batzordekide izatera, Carlos de la Torre, Gazteriaren LK-tik Batzorde Iraunkorreko batzordekide izatera eta José Miguel Garrido Nafarroako Eztabaida Batzordetik CJN-NGK erakundeko Lehendakari zara.

José Miguel Garrido Presidentziarako hautagaiak bere kandidatura aurkeztu du.

Idazkariak ozenki egin du etorritako erakundeen deia, euren ordezkariak boto eskubidea erabili dezaten eta emaitzaren berri ematen da, ondorengo datuen arabera:

- Ángela Gabarre: - 14 aldeko boto eta abstentzio bat.
- Carlos de la Torre: 10 aldeko boto eta bost abstentzio.
- José Miguel Garrido: 15 aldeko boto.

Pertsona hautagaiak Batzorde Iraunkorreko kide aldarrikatzen dira, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Lehendakariarekin gauza bera eginez.

Galde-eskeen atalari ekingo zaio, alegia hamargarren atalari. Gazteen Gurutze Gorriak galdetu du aurten Ezohiko Batzorde Nagusia ospatuko al den. Erantzun zaio kontuak onartzeko, gestio txostena eta bestelako gai orokorrak aurkezteko ospatzea aurreikusten dela.

Gai-zerrendako hamaikagarren atalari ekin zaio, alegia Batzorde Nagusiaren klausurari. Julia Chica Espainiako Gazteriaren Kontseiluko Lehendakari andreak hitz batzuk eskaini dizkigu. Eduardo Alonso Arechagak, Lehendakari kargua uzten duenez, Batzordeari agur esan dio.

Saioa amaitutzat ematen da egun horretako 13:32etan eta nik, bertako Idazkaria izanik, horren fede ematen dut, Iruñean 2017ko urriaren 23an.

José Miguel Garrido
CJN-NGK-ko Presidentea

Kevin Lucero Domingues
CJN-NGK-ko Idazkaria